

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

NOZeko larrialdi zerbitzuek 681 pertsona artatu dituzte jaien lehen bost egunetan

Kopuru horretan ez dira barne hartu entzierroko istripuen ondorioz ospitaleetako larrialdietan artatu direnak

Lunes, 11 de julio de 2011

Nafarroako Osasun Zerbitzuko arreta espezializatuaren sareko larrialdi zerbitzuek, Dr. San Martín anbulatorioan eta Nafarroako Ospitale Guneako ospitaleetan (Nafarroako Ospitalea eta Virgen del Camino Ospitalea) daudenek, San Fermin jaietako istripuak direla-eta 681 kasutan osasun laguntza eman dute, jaien lehen bost egunetan.



Nafarroako Ospitale Gunea

Nafarroako Ospitaleak eta Virgen del Camino Ospitaleak, bien artean, uztailaren 10era arte, 211 pertsona artatu dituzte; Dr. San Martín anbulatorioak, aldiz, 470 pertsona. Arreta jaso dutenen kopuru horretan ez dira kontuan hartu entzierroko istripuen ondorioz ospitaleetako larrialdietan artatu behar izan direnak.

Uztailaren 9an artatu zen jende gehien, 178 pertsona hain zuzen ere. Horren ondoren, hurrenkera horretan, uztailaren 6an 154 lagun, uztailaren 7an 121 lagun, uztailaren 8ean 115 lagun eta uztailaren 10an 113 lagun artatu ziren.

Patologiaren arabera, larrialdietako arreten kausarik ohikoenak traumatismoak eta zauriak dira (397 kasu). Horren ondoren, kasurik nabarmenenak intoxikazio etilikoak (130) eta erasoak (72) izan dira. Neurri apalagoan gertatu dira beste arreta batzuk (44), hainbat traumatismo izan dituztenak (18), drogen intoxikazioak (11) eta elikagaien toxiinfekzioak (9).